

KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN



Ikasturtea: 2017/18
GRADUA: Haur Hezkuntza
Lana: 5. Diziplinar-teko lana

Aurkibidea:

1. Sarrera	6
2. Konpetentziak	7
3. Taldeen egitura	8
4. Lan gidatua	8-11
5. Ebaluazioa	12
5.1.Kalifikazioari buruzkoak.....	12
5.2.Ebaluazio irizpide orokorrak	13
5.3. Konpetentzi bakoitzari dagozkionak.....	13
6. Eranskinak	14

KONTUTAN HARTU BEHARREZKOAK

DATA	EGITEKOA	Nork
Irailak 20	Diziplinarteko lanaren aurkezpena	Irakasle taldea: Luispe Gutiérrez, Gurutze Aldabaldetrekua, Lurdes Sagarzazu, Izaskun Baro, Koldo Garai, Olaia Miranda.
Irailak 25	Irailaren 25erako, ikasle talde bakoitzaren arduradunak Josu Sanz irakasleari bidaliko dio EHUko emailaren bitartez: 1. taldea osatzen duten ikasleen izenak 2. Zein bi gai aukeratu dituzten (lehentasunaren arabera) Ikasle taldeak ALFABETIKOKI egingo dira (ikasle zerrenda ofiziala jarraituz). Talde hauek lau ikasleez osatuta egongo dira eta ez da aldaketarik onartuko ikasleen artean. <ul style="list-style-type: none"> ▪ DILAN-ean EZ dute parte hartuko: ERASMUS programan daudenek, ebaluazio jarraia egiten ez dutenek, beste graduetatik (LHtik) datozenek. ▪ DILAN-ean parte hartuko dute ebaluazio jarraia egiten dutenek eta 1.go lauhilabetean egongo direnek, nahiz eta 2en lauhilabetean 	Ikasle talde bakoitzaren arduraduna

DATA	EGITEKOA	Nork
	kanpora joango diren.	
Irailak 27	<p>Irakasle taldeak talde bakoitzeko arduradunari bidaliko dio emailez:</p> <p>1. Landu behar duten gaia.</p> <p>2. Talde horren tutorea izango den irakaslea</p> <p><i>Momentu horretatik aurrera, taldeak egokitu zaion irakaslearekin funtzionatuko du.</i></p>	Irakasle taldea

Urriak 4	Talde bakoitzak T1 dokumentua bidali irakasleari (ikus 5. atala)	Ikasle taldea
Urriak 27	Ikasle bakoitzak B dokumentua bidali irakasleari	Ikasle bakoitzak
Urriak 30ko astea	<p>Lanean sakontzeko astea</p> <p><i>8. aste honetan klase ordu guztiak erabiliko dira lan taldeek lanak aurreratu ditzaten eta gutxienez bere irakaslearekin eta beste irakasleekin tutoregoak egiteko (lanaren ikuspegi globala diziplinartekoa delako)</i></p>	Irakasle-ikasle taldea
Azaroak 3	Talde bakoitzak T2-1 dokumentua bidali irakasleari	Ikasle taldea
Abenduak 15	Talde bakoitzak T2-2 dokumentua bidali irakasleari	Ikasle taldea

1. Sarrera

Aurreko hiru ikasturteetan egin den moduan, laugarren honetan ere, diziplinarako lan bat garatu beharko duzue. Aurtengoa urte osokoa izango da eta bere ardatza ondorengoa: KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN.

Dagoeneko dakizuenez, taldean egin beharreko lana izango da eta hirugarren ikasturteari dagozkion zazpi irakasgaietako ekarpenak jasoko dituzue. Irakasgaien irakasle-taldeak diziplinarako lan hau diseinatu, jarraipena egin eta ebaluatuko du.

Egitekoa hurrengo hau izango da: Eszenatoki batetik abiatuz, Haur Hezkuntzarako ikaskuntza-irakaskuntza proposamen baten diseinua. Erabiliko den metodologia Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) izango da

Lan hau burutzeko bi aste eskainiko dira: bat lehen lauhilekoan (**urriak 30 – azaroak 3**) eta bestea bigarren lauhilekoan (**otsailak 12tik – 16ra**).

Honako hauek dira irakasgaiak:

Arte plastikoak eta ikuste-kultura Haur Hezkuntzan II (1 kreditu) Olaia Miranda	DIZIPLINARTEKO LANA: KONPETENTZIEN LANKETA ESKOLAN
Garapen Psikomotorra II (1 kreditu) Luispe Gutiérrez	
Pentsamendu Matematikoa eta bere didaktika (0'5 kreditu) Izaskun Baro	
Musika adierazpenaren garapena II (1 kreditu) Lurdes Sagarzazu	
Zientzia esperimentalak Haur Hezkuntzan (0,5 Kreditu) Josu Sanz (koordinatzailea)	
Hizkuntzaren didaktika eta Atzerriko Hizkuntza (1 kreditu) Koldo Garai	
Hizkuntzaren eta Literaturaren didaktika (1 kreditu) Gurutze Aldabaldetretu	

2. Konpetentziak:

Hirugarren kurtsorako lehenetsitako konpetentziak

1. G011. LAN AUTONOMOA ETA TALDE LANA

G004.BIZIKIDETZA ETA GATAZKEN KONPONKETA

Haur Hezkuntzako arazoak identifikatu, eta aztertu, hasieran bakarka eta taldeka ondoren, zalantzak azaltzerakoan (terminologia, kontzeptuak, egoerak...) besteen ideiak eta iritziak errespetatuz.

2. G013.HEZKUNTZA-IKERKETA

Hainbat iturritatik taldeka informazioa bildu eta antolatu, Haur Hezkuntzako ezagutza eremuak kontutan izanik eta ikuspegi guztiak interpretatuz.

3. G012. HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO DISEINUA

G001.DIZIPLINARTEKOTASUNA CURRICULUM-ARLOETAN

G003.IKASKUNTZA-TESTUINGURUAK ETA DIBERTSITATEA

Lehen haurtzaroko arazoak ebatzi eta konponbide izan daitezkeen hezkuntza esku-hartzeak taldean egindako txosten idatzi batean adierazi.

4. G015.KOMUNIKAZIO-KONPETENTZIAK

Haur Hezkuntzako egoerak(espazioa, nutrizioa, egokitzena...) modu kreatiboan (arte plastikoa, musikala, antzerkia, ipuinak.. erabiliz) aurkeztu jende aurrean , plazera, eztabaida eta hausnarketa suspertuz.

3. Taldeen egitura


Taldeak lau ikaslez osatuko dira, zerrenda alfabetikoaren arabera.

4. Lan gidatua

Eszenatoki batetik abiatuz, Haur Hezkuntzarako ikaskuntza-irakaskuntza proposamen baten diseinua egin behar duzue. Erabiliko den metodologia Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) izango da.

Narrazio kreatibo baten gainean eraikitako diseinua izango da, lau gune-espaziotan. Ibilbide bat diseinatu beharko da eta gune bakoitza eraiki planteamendu baten arabera.

Lanaren eskema ondorengoa izango da:



Lan gidatuaren inguruan informazio gehiago behar baduzue, ikus 1 eranskina

4.1. Eszenatokiak

GAIA: SENTIMENDUEN ETA EMOZIOEN ERREGULAZIOA

Guraso bilera batean haur baten gurasoek beren kezka azaldu dute: *Hansel eta Gretel* ipuina lantzen hasi direnetik 4 urteko semea urduri sumatzen dute. Gaez gaizki lo egiten du eta oso aldarte aldakorra erakusten du. Gelako beste haurrengan ere zerbait sumatu ote duten jakin nahi dute, ipuinak haurraren egoeran eragin zuzena izan dezakeelakoan.

GAIA: INGURUNERA HURBILTZEN

Berritzeguneko aholkulari talde bat zarete eta Donostia inguruko eskualde bateko eremuan lan egiten duzue. Eskola ezberdinak daude, herri ezberdinen adierazle: eskola txiki batzuk, landa-inguruan kokatuta, baina baita eskola handi batzuk, populazio dentsitate handikoak. Oso eskola ezberdinak dira hauek, bai egitura aldetik, bai ikasle kopuru aldetik, eta baita ingurunearekiko erlazioaren aldetik ere. Hala ere, sumatu duzue, orokorrean, nahiz eta eredu ezberdinak izan eta ingurune ezberdinetan kokatuak egon, oso erlazio gutxi dutela bere ingurunearekin, klase ordu gehienak eraikin barruan ematen dituztelarik. Bi eskola eredu horiek kontutan harturik (eskola txikia, populazio dentsitate handiko herriko eskola) zer egingo zenukete egoera hau ekiditeko?

GAIA: EGOKITZAPEN- PROSEZUA

Irailaren hasiera da. Auzoko ikastetxean bi urtekoen gelako irakasleek egokitzapen-prozesua zehatz-mehatz prestatu dute ikastetxeko zuzendaritzarekin batera. Baita gurasoei azaldu ere: ikasturtea hasi eta lehen bi asteetan, haurrek nagusi batekin etorri behar dute gelara. Lehen astean, ordu t'erdi bakarrik emango dute ikastetxean eta tarte horretan haurraren kargua duen nagusiak gelara sartzeko aukera izango du. Bigarren astean berriz, goiz osoa pasako dute haurrek ikastetxean eta nagusiak gelatik kanpo egongo dira, haurrek gelatik irtetea aukeran izango dutelarik. Hirugarren astean gelako martxa "normalari" ekingo diote.

Ainara eta Aritz, bi urteko umeak, auzoko ikastetxean hasi dira.

Ainararen gurasoak kanpokoak dira, biak lanean ari dira eta Ainararen egokitzapen-prozesua egin ahal izateko Ainararen amak oporrak hartu behar izan ditu. Ainara oso erraz egokitu da, hirugarren egunerako ez da amarengana hurbiltzen eta honek, egoera ikusita, gelako irakasleari hurrengo egunean ez gelditzea eskatzen dio...

Aritzi, berriz, izugarri kostatzen ari zaio egokitzea. Bi aste pasa dira eta oraindik

aitarengandik ez da bereizten. Aitak, orduan, Aritzen egokitzapen-prozesua luzatzea eskatzen du ikastetxean...

Ainararen amak zein Aritzen aitak ezezko erantzuna jasotzen dute ikastetxetik...

GAIA: NORTASUNAREN GARAPENA

Ikasturte honetako 3 urtekoen gela oso bizia da; 25 haur daude, horietako 2 bikiak dira.

Gela berean mantendu dituzte, gurasoek hala eskatuta. Ikasturteak aurrera egin ahala, irakaslea pentsatzen hasi da erabakia, behar bada, ez dela egokiena izan eta hurrengo ikasturteari begira Paul eta Elene elkarrekin mantendu ala ez erabaki beharko dutela.

GAIA: ELKARBIZITZA

Lau urtekoen gelan bi ikasle berri gelaratu dira ikasturtearen erdian. Irakasleak eta ikasleek ongi onartu badituzte ere, denbora gutxira, ikasgelako funtzionamendua eragozten duten jarrerak azaltzen hasi dira: bortxazko jokabideak, errespetu faltarekin loturiko ekintzak, elkarbizitza-arauen urraketa...

Irakaslea kezkatu dago eta elkarbizitza berreskuratzeko konponbideak bilatzen hasi da.

GAIA: ALARMA GARAIA

Aitorrek duela hiru urte bukatu zituen Haur Heziketako irakaslea izateko ikasketak. Oso pozik dago, lehen aldiz bera bizi den ondoko ikastetxe kontzertatu batean ordezkapen bat egiteko deitu baitute. Ordezkapena bi urtekoen gelan bete behar du Aitorrek. Bertan Malen dago. Malenek pixoihala erabiltzen du oraindik eta Aitorrek egunean bizpahiru aldiz aldatu behar izaten dio pardela.

Malenen gurasoek ikastetxeko zuzendariarekin hitz egin dute eta beren alabaren gelan gizonezko irakaslerik ez dutela nahi esan diote

GAIA: ESPAZIOEN EGOKITASUNA ESKOLAN

Haur Hezkuntzako eskola bateko zuzendaritza taldeko kideak zarete eta pedagogia berritzaileetan oinarritutako hezkuntza eskaintzen duzue, baina hori ez dator bat eskolako hainbat espazio arkitektonikorekin. Aurtengo kurtsoan sekula baino istripu gehiago izan dira (patioko lurra gogorra da, eskolako sarrera ez da egokia, pasilloak ez daude ondo argiztatuta,.. hori dela eta gurasoak kezkatzen hasiak dira. Arazo horren aurrean erronka berri bati heldu behar diozue, haur hezkuntzako eskolek izan behar

dituzten baldintza arkitektonikoak ezagutu eta horren arabera proposamen berri bat aurkeztu gurasoen aurrean.

GAIA:ALERGIAK ETA INTOLERANTZIAK

Irakasle berria zara Eskola batean, 5 urtekoen bi talde daude eskolan eta Eskola buruak enkargu bat egokitu dizu: urte hauetan alergia eta intolerantzia mota ezberdinak dituzten haurren kopurua asko handitu da. Aurreko urtean zenbait arazo egon ziren gai honekin, tutoreek ez zuten argi hainbat kontzeptu eta jokabide. Zure lana izango da alergia eta intolerantziari buruzko analisia egitea (zer diren, nola ekidin, zenbat haur dauden klase bakoitzean, nola jokatu...) Horrela eskolako bi klaseetako tutoreei laguntza eskainiko diezu alderdi hauetan.

GAIA: HAURRAK ETA HERIOTZA

Anek bost urte ditu eta oso neska alaia eta maitatua da gelan. Bere gurasoak lan egiten dutenez, jeneralean amonarekin joaten da eskolara eta honen etxean bazkaltzen du egunero. Asko maite du Anek bere amona. Zoritxarrez, orain bi aste amona gaixotu eta handik egun gutxitara hil egin da. Geroztik Ane triste dabil, burua altxatu ezinik eta ez du ezertako gogorik. Gelakideek ez dute oso ongi ulertzen zer gertatu den baina ez dute Ane triste ikusi nahi.

Tutorea gaia nondik eta nola heldu pentsatzen hasi da, Ane eta talde osoa kontutan hartuz.

5. Ebaluazioa eta entregatzekoak.

5.1 Kalifikazioari buruzko zehaztapenak: Atal honetan azalduko duguna:

- a. Zer eta non ebaluatzen den
- b. Nortzuk ebaluatzen duten
- c. Irakasgai bakoitzaren azken notan, moduluko kalifikazioa nola islatzen den.

a. Ebaluazioan bakarka eta taldean egiten diren lanak hartuko dira kontuan:

Bakarkako lana: B.

Taldeko lanak hiru izango dira: T1, T2 eta T3/A

T1: Hautapenaren justifikazioa. Arazoa eta hipotesiak. Funtzionamendu arauak. (Urriak 4)

B: Informazioaren bilketa eta analisisa (Urriak 27).

T2: (T2-1) Informazioaren sintesia (azaroak 3an). Arazoaren (ber)definizioa. Aurreko atalei buruzko txostena.

(T2-2) Azken txostena: proposamen didaktikoa (abendua 15an entregatzeko).

T3/A: Moduluko lanaren aurkezpena / defentsa (otsailak (20-24). Asistentzia derrigorrezkoa da).

Ikasturteko osoko modulua denez eta irakasgaietako bi lauhilekoak direnez, kalifikaziorako bi une izango dira:

- Urtarrileko deialdikoak: B, T1 eta T2 ebaluatuko dira eta *Pentsamendu Matematikoa eta bere dka* eta Zientzia esperimentalak Haur Hezkuntzan irakasgaietan, azken notan agertuko da.
- Maiatzeko deialdikoak: lehen lauhilekoan egindakoak eta T3/A. Urte osoko irakasgaien azken notan joango dena.

b. Moduluaren ebaluazioan gutxienez bi irakaslek hartuko dute parte, horietako bat tutorea izanik.

c. Irakasgaien azken notan moduluak izango duen balioa:

- Lehen lauhilekoko ikasgaietan: 0.8 gehienez.
- Urte osokoetan: 1.6 gehienez

Oharra: DILAN egiten ez duen ikasleak, irakasgaia bakoitzaren irakaslearekin adostu beharko du azken emaitza.

5.2. Ebaluazio irizpide orokorrak (Irizpide hauek Gradu konpetentzietan oinarrituta daude)

1. Atala (Bakarkakoa + taldekoa)

1. Gaiari buruzko oinarri teoriko sendo eta kontrastatu bat aurkeztea.
2. Bakarkako lanetik taldeko lanera egindako prozesuaren justifikazioa, argudioa eta dokumentazioa, egokia izatea.
3. Planteaturiko agertokiari irtenbide bat baino gehiago bilatzea, eta behin betikoa justifikatzea.

5.3. Gaitasun bakoitzari dagozkionak

Lehenengo Konpetentzia:

- 1) HHko eszenatokien informazioa biltzen du.
- 2) Bere gain hartzen du eszenatokien informazio biltzea.
- 3) Ekarrirako informazioa besteenarekin alderatzen dute.
- 4) Besteekiko jarrera irekia erakusten du.

Bigarren Konpetentzia:

- 1) Informazioa liburuetatik, aldizkarietatik, datu baseetatik eta hezkuntzako eragileengandik hartzen du.
- 2) Informazioa ordenatzen eta sailkatzen du.
- 3) HHko umeen esperientzia eremuak islatzen ditu.
- 4) Besteen iritzien aurrean malgutasunez jokatzeko du.

Hirugarren Konpetentzia:

- 1) Hezkuntza mailako irtenbideak aurkitzen saiatzen da.
- 2) Egoera praktikoetara egokitutako proposamenak alderatzen ditu.
- 3) Lehen haurtzaroko esku-hartze proposamenak idatziz adierazten dituzte.
- 4) Taldekideen artean adostasunez jokatzeko dute.

Laugarren Konpetentzia:

- 1) Sormena eta originaltasuna adierazten du Haur Hezkuntzako arazoaren konponbidea errepresentatzen duenean.

- 2) Irudimena eta baliabide artistiko anitzak erabiltzen ditu.
- 3) Besteen aurrean beldurrik gabe agertzen da.
- 4) Ikaskideengan, Haur Hezkuntzako aztergaien (nutrizioa, espazioa..) inguruko gogoeta eta parte hartzea bultzatzen du.

6. Eranskinak.

T1 LANA EGITEKO IRIZPIDEAK

Lanean, modu narratibo batean (alegia ez eskema gisara, narrazio txiki bat eginez baizik) honakoak kontatu behar dituzue:

- ☒ Taldearen funtzionamendua: nola hartu duzuen taldeen banaketa eta nola antolatu zareten lanari ekiteko.
- ☒ Gaiaren hautapenaren justifikazioa (gaiak nola zerrendatu zenituzten eta zergatik, nola hartu duzuen egokitu zaizuen gaia,...)
- ☒ Zalantza, hipotesi, ideia eta balizko konponbideak eta erantzunak

Ez dugu zehazten lanaren luzera. Talde bakoitzaren esku uzten dugu, beti ere testuaren izaera narratiboa azpimarratzen dugularik.

Lana tutoreari bidali behar diozue e-mailez urriaren 4ean beranduenez.

BAKARKAKO LANA EGITEKO IRIZPIDEAK

Bigarren lana bakarkako lana da. Honek esan nahi du taldekide bakoitzak, alegia nork bere aldetik, informazio bilatu, aztertu eta bertatik ondorioak atera behar dituela.

Ondoren, arazoari beste buelta bat eman behar dio. Izan ere jasotako informazioak, behin huraxe aztertu eta hausnartu ondoren, ikasle bakoitzak gaiaren aurrean zituen ikuspuntua eta iritziak aldatu edo sendotu egingo ditu. Arazoa berdefinituko du, alegia.

Honekin guztiarekin **taldekide bakoitzak** txosten bat burutu behar ditu non honakoak bilduko dituen:

1. Informazioaren bilketa, analisia eta sintesia
 - a. Zer pauso eman ditut gaiaren inguruko informazioa biltzeko? (artikuluak, liburuak, bideoak, musika, elkarrizketak, bisitak...)
 - b. Zer informazio bildu dut?
 - c. Bildu ditudan informazio guztietatik zer da adierazgarria?

2. Arazoaren (ber)definizioa
 - a. Nola ikusten dut orain arazoa?
 - b. Aldatu al da nire iritzia?
 - c. Nola arrazoituko nuke nire oraingo jarrera?
 - d. Zer zalantza berri sortu zait?
 - e. Zein litzateke eman beharreko hurrengo pausua?

OHARRA:

Idatziko den txostenean hemen azaltzen diren bi puntu nagusiak bereizita joan arren, aurrekoan bezala estilo narratiboa gorde beharra dago.

T2-1 eta T2-2 LANAK EGITEKO IRIZPIDEAK

Lehen lauhileko azken lan honetan orain arteko prozesuaren sintesia egin beharra dago. Horretarako, berriro ere talde lanari ekingo diogu, bakoitzak egindako txostenetik abiatuta.

T2-1 (azaroak 3ean entregatzeko) Honakoak bilduko ditu:

- **Informazioaren sintesia.** Atal honetan informazio-iturri guztiak zerrendatu eta erreferentziatzeaz gain, ondoriorik adierazgarrienak aipatu behar duzue.
- **Talde-eztabaidaren laburpena.** Hemen taldekideen artean izan duzuen eztabaida ahalik eta zehatzen deskribatzea interesatzen zaigu: non bildu zineten, zenbat denboraz, eta batez ere, zer argudio plazaratu ziren, nork plazaratu zituen eta nola arrazoitu zen argudio bakoitza. Bileraren deskribapen zehatza alegia.
- **Arazoaren (ber)definizioa.** Azken puntu honetan talde bakoitzak arazoa nola ikusten duen, zer egingo lukeen eta zergatik adierazi behar ditu.

T2-2 (abenduak 15 entregatzeko) Proposamen didaktikoa.

Talde-txosten honekin bukatutzat emango dugu disziplinar-teko lana oraingoz eta bigarren lauhilekorako arazoaren ebazpena eta prozesu osoaren inguruko narrazio kreatiboa utziko ditugu.

NARRAZIO KREATIBOA (T3) SORTZEKO UNEAN KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT IRIZPIDE

1. Narrazio kreatiboa ez da, **inolaz ere**, aurkezpen formal bat. Beraz, ez duzue ppt aurkezpenik prestatu behar.
2. Lehen lauhilekoan egindako idatzia oso kontuan izan behar duzue narrazio kreatiboa sortzeko unean, horixe izango baita narrazio kreatiboaren abiapuntua eta oinarria.
3. Narrazio kreatiboaren **helburua ez da txosten idatzia kontatzea** baizik eta gainerako ikasle zein irakasleengan interesa sortzea zuek landu duzuen eszenatokian.
4. **Lehen pausoa gidoi moduko bat prestatzea da**: zuen eszenatokian zer iruditzen zaizue dela transmititu beharra dagoela ezinbestean? Hauxe izango da zuen narrazio kreatiboaren ari gidaria!!
5. Zein dira besteengan zuen eszenatokirako interesa sortu dezaketen egoerak, elkarrizketak, irudiak, musikak, ipuinak, poemak,... Hauxek izango dira narrazio kreatiborako baliabideak.
6. Aurreko bi puntuak ongi aztertu ondoren biak uztartzeko euskarririk egokiena bilatuko dugu: antzerkia, bideoklipa, rol-playing,... (bat baino gehiago ere izan liteke..)
7. Aurkezpenetarako fitxa bete (txostenean 14.orrialdea) eta talde bakoitzak bere tutoreari entregatu.

Narrazio kreatiboa (bestelako kontuak)

- Aurkezpenak gehienez ere 30 minutu iraungo du eta bertan narrazio kreatiboaz gain bestelako estrategiak ere erabil daitezke (galderak botatzea, eztabaidak sortu,...)
- Otsailaren 12-16 astean ez da eskolarik izango eta horixe izango duzue narrazio kreatiboari azken ukituak emateko aukera
- Aurkezpen guztiak 19-23 astean egingo dira, denak psikomotrizitate-gelan baldin eta talderen batek beste espaziorik eskatzen ez badu.
- Talde bakoitzaren aurkezpenetara (GA1-GA2) etorri beharra dago. Alegia, ni GA1ko partaidea banaiz GA1ko aurkezpen guzti-guztietara etorriko naiz.

Narrazio kreatiborako hainbat ideia

- Zergatik horrelako diseinua eta ez ohikoa?

Komunikazio gaitasunak garatzea garrantzitsua iruditzen zaigu, irakasle baten gaitasunak modu ezberdinetan (multimodala) komunikatzen jakitea garrantzitsua baita. Proiektuak eta hezkuntza-ikerketak era ezberdinetan dokumentatzea eta modu ezberdinetan azaltzea beharrezkoa ikusten dugu XXI. mendean irakasle izango denarentzat. Testu idatzia erabiltzeaz gain, beste formatu batzuk erabiltzeari garrantzitsu deritzogu: ikus-entzunezkoa, imajinak, gorputz adierazpena, audioa edo musikaren bitartez, e.a.

- Nola gauzatu?

Diseinu honen eraikuntzarako 4 gune bereizi beharko dituzue; gune hauen bitartez proposamen didaktikoaren diseinua garatu behar duzue. Egiteko honen barruan kokapen bakoitzaren antolaketaz eta beraien arteko loturaz arduratu beharko duzue.

Proposamen hau aurrera eramateko Tolosako Topic-en (Tolosako nazioarteko txotxongilo zentroa: <http://www.topictolosa.com/eu/albisteak/230-visitas-dramarizadas-a-la-exposicion-sobre-pinocho.html>) dagoen erakusketa batean oinarritu gara. Antolatutako erakusketan bisitariak antzezle batek dramatizatutako bisitan parte hartzen du. Antzerkia eta artearen arteko zenbait ideia elkartzen dira, sortu den istorioaren kapituluak adierazten dituen koadroak, imajinak, e.a. aurkeztuz.



1. Antzezlea eta bisitariak



2. Pinotxoren pertsonaia, koadro, imajin edota sortu dituzten objektuetatik mugitzen du antzezleak.



3. Itzalekin edota hitz-idatziarekin nahastu dezakegu adierazpena.



4. Eszenatokia objektu edo elementu ezberdinekin osa dezakezue.

- Baldintzak:

Narrazio kreatibo honek komunikaziorako adierazpen ezberdinak bere baitan jaso behar ditu garapen integral baten testuinguruan:

- a. Musika: ikasle guztiek parte hartu behar dute interpretazioan: musika, gorputz adierazpenaren bitartez, musika tresnak erabiliz.... taldeak sortu edo interpretatu beharko du aurkezpenerako musika.
- b. Plastika: eszenatokiaren diseinua; zein objektu, imajina, ilustrazio, argi, e.a. erabili erabakiko dugu eta elementu horiek bildu edo sortuko dituzue. Haur liburuen ilustrazioak oinarritzat hartuko ditugu gure imajinak sortzeko.
- c. Garapen Psikomotorra: gorputza espaziotik nola mugitu aztertuko dugu; antzezpenerako “zirkuitua” sortuko dute.
- d. Atzerriko Hizkuntza: ingelesa edo hizkuntzaren erabilera.
- e. Literatura: hari narratiboaren eraiketa; istorio ezberdinen erabilera...

- Aurkezpenerako fitxa:

DATUAK

Ikasturtea, gradua, maila:.....

TALDEA:

Aurkezpenaren

izenburua:.....

Taldekideak (izen abizenak eta email_a):

1.

2.

3.

4.

ISTORIOAREN LABURPENA:

AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK:

2 Eranskina:

Ebaluazioa taulak.

- Auto-ebaluaziorako fitxa (ERRUBRIKA)

Izen-abizenak:

Taldea:

	BIKAIN (10-9)	OSO ONGI (8-7)	NAHIKOA (6-5)	ESKAS (5etik behera)
Lana (banakakoa)	Beti garaiz entregatzen dut lana, segimendu beharrik gabe	Lan guztiak entregatzen ditut, ia beti garaiz, baina segimendu eginda	Zenbait lan berandu entregatzen dut eta segimendu handia behar izaten dut	Segimendua egin arren oso lan gutxi edo bat bera ere ez dut garaiz entregatzen
Aparteko ekarpenak (banakakoak)	Hirutan edo gehiagotan gaiarekin loturiko material garrantzitsua gehitu dut	Bitan gehitu dut gaiarekin loturiko material garrantzitsua	Behin gehitu dut gaiarekin loturiko material garrantzitsua	Ez dut gaiarekin loturiko material garrantzitsurik gehitu
Kritikaren aurrean jarrera (banakakoa)	Beti izaten naiz edozein taldekideren kritika edota iradokizunak onartu eta erantzuteko prest	Ia beti izaten naiz edozein taldekideren kritika edota iradokizunak onartu eta erantzuteko prest	Gutxitan onartzen ditut taldekideen kritikak edota iradokizunak	Oso gutxitan edo ia inoiz ez ditut taldekideen kritika edota iradokizunak onartzen
Beste ikuspuntuaren eransketa (banakakoa)	Hirutan baino gehiagotan erantsi dizkiot ñabardura berriak aurrez nuen ikuspuntuari	Bitan baino gehiagotan erantsi dizkiot ñabardura berriak aurrez nuen ikuspuntuari	Behin erantsi dizkiot ñabardura berriak aurrez nuen ikuspuntuari	Aurrez nuen ikuspegiari inoiz ez diot ñabardura berririk erantsi

<p>Talde-lanean parte hartzea (banakakoa)</p>	<p>Gogoz parte hartu dut gogoeta, ideia eta zalantzen bateratze-lanetan</p>	<p>Batzuetan parte hartu dut gogoeta, ideia eta zalantzen bateratze-lanetan</p>	<p>Gutxitan parte hartu dut gogoeta, ideia eta zalantzen bateratze-lanetan</p>	<p>Oso gutxitan edo inoiz ez dut parte hartu gogoeta, ideia eta zalantzen bateratze-lanetan. Beste kontu batzuei jarri diet arreta</p>
<p>Banakako zein taldekako autonomia talde-lanean</p>	<p>Arazoak edo kontuak aurrena neuk hausnartzen ditut eta gero taldean aurkezten ditut eztabaidatzeko. Irakasleari taldeak ezinbesteko ikusten duenean soilik galdetzen zaio</p>	<p>Arazoak edo kontuak aurrena taldekideen artean eztabaidatzen ditugu, lehenago banakako gogoetarik egin gabe. Ondoren, irakasleari iritzia eskatzen diogu</p>	<p>Arazoak edo kontuak aurrena taldekideen artean eztabaidatzen ditugu, lehenago banakako gogoetarik egin gabe, baina batzuetan nahiago izaten dugu lehendabizi irakaslearen iritzia jakitea</p>	<p>Taldekideen artean arazoak eta kontuak eztabaidatu aurretik, oso maiz eskatzen diogu irakasleari iritzia</p>

- Taldeak bere lana ebaluatzeko ERRUBRIKA

Taldea _____

	ESKAS	NAHIKOA	OSO ONGI	BIKAIN
	1	2	3	4
Ekarpenak taldeari	Taldearen zati bat bakarrik konprometitu da	Ia pertsona guztiek konprometitu eta osatu dituzte beren egin beharrekoak	Taldekide guztiek hartu dute parte talde-lanean, nahiz eta maila ezberdinean izan	Taldekide guztiek maila bertsuan hartu dute parte talde-lanean
Bateratze-lana	Liskarraren bat edo beste egon da talde-eztabaidetan	Ez da liskarrik izan baina pertsona guztiek ez dute berdin jokatu	Bateratze-lanak planifikatzeko eta zalantzak argitzeko balio izan du	Eztabaidak lagungarri izan dira taldea lantalde gisa batzeko
Kritika eta adostasuna	Bakoitzaren lana ukiezina da eta inork ez du zeresanik	Zerbait gaizki egonez gero, eta azken nota ez kaltetzearren, komenta daiteke baina inori ez zaio gustatzen bere lana auzitan jartzea	Orokorrean, eta batzuetan mintzen badu ere, onartzen da beste taldekideek banakako lanaren inguruan duten iritzia	Banakako lana taldearen kritika eraikitzailearen galbahetik pasatzen da; adostasunaren bila eztabaidatzen da gatazkarik sortu gabe, min egin dezakeen arren

ESKU-HARTZEAREN INGURUAN.

A. HAUR HEZKUNTZAKO HAURREI ZUZENDUTAKO ESKU-HARTZEA

OHARRA: JARRAIAN DATOZEN ATALAK OSATZEKO HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMAZ BALIATU

UNITATEA: (ESZENATOKIAREN IZENBURUA)

MAILA: (HAUR HEZKUNTZAKO ZEIN MAILATAN)

IKASTURTEA: 2016-17

OINARRIZKO GAITASUNAK : (Haur Hezkuntzari erantzuten diotenak)

-
-
-

HELBURU OROKORRAK : (Esperientzia eremuekin lotura dutenak)

EDUKIAK: (Haur hezkuntzako curriculum)

-

-

-

EBALUZIOA IRIZPIDEAK: (ezarri ditugun helburuekiko ebaluzio irizpideak)

-

-

ESKU-HARTZEAREN ZEHAZTAPENA: SEKUENTZIEN AZALPENA

1. SEKUENTZIEN KOPURUA: Hiru eta bosten artekoa
Gaiaren gerturatze batetik abiatu eta arazoaren irtenbidera heltzeko behar adinakoak.
2. Sekuentzia bakoitzak jarduera desberdinak biltzen ditu.
3. Bideragarriak eta esku-hartze orokorrari begira egokiak iruditzen zaizkigun jarduerak (ez ditugu jarduera zerrenda amaigabeak osatuko)
4. Jarduera bakoitzaren barruan: hurrengo adibidean agertzen diren puntuen berri eman.

I. SEKUENTZIA : GAIARI GERTURATZEA

JARDUERA	DENBORA	IKASLE TALDEAK	IRAKASLE ROLA	BALIABIDEAK

Eta gauza bera gainontzeko sekuentziekin.

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

B. ESKU-HARTZEA GURASOEI, KLAUSTROKIDEEI, IRAKASLEEI ... ZUZENDUA BADA

Esku-hartzea bestelako eragilei zuzendua bada, garatu esku-hartze horretan burutuko diren jarduerak, sekuentzia desberdinetan bilduz eta helburuak zehaztuz.

OHARRA: DIZIPLINARTEKO LANA

Talde bakoitzak erabakiko du zein unetan eta nola uztartzen dituen esparru desberdinak .